



Elgoibarko Emakume eta gizonen berdintasunerako Elgoibarko II. Plana 2013-2015

aurkibidea

1	Abiapuntua	3
2	Esparru teorikoa eta lege-esparrua	6
3	Planaren helburuak eta ezaugarriak	15
4	Diagnostikoan jasotako hobetzeko arloak – Beharren mapa	16
5	Jarduera Plana	20
6	Planaren kudeaketa	34
7	Kronograma	37
	Eranskina: Berdintasunaren Abezea	40

1.Abiapuntua

Elgoibarko Udalak esperientzia du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko esparruan. Horretarako, hainbat ekintza eta programa aurrera eraman ditu, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programak eta jabetzuntza sustatzeko ekimenak burutu ditu, eta aldi berean, Haizea emakumeen taldearekin eta Emakumeon Asanbladarekin elkarlanean aritu izan da.

2009an, genero-berdintasunaren arloko jardunak sendotu, egituratu eta programatzeko, Euskal Administrazioak hartutako konpromisoen ildotik, Udalak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana 2008-2011 onetsi zuen Debegearen (Deba Bareneko Garapen Agentzia) laguntzarekin. Bertan landu diren arloak, bestalde, ondokoak dira: Udal kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea; bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna; emakumeak ahalduntzea eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoak eta emakumeen aurkako indarkeria.

Egin den I. Planaren ebaluazioan jasotakoaren arabera, planaren betetze maila ona izan da, proposatutako ekintzen kopuru handia kontuan izanda. Hainbat ekintza egin gabe gelditu dira aurrekontu faltagatik, udal eskumenekoak ez direlako edota bideragarriak ez direlako. Ondoren, I. Planaren mugarriak zehaztuko dira.

Era berean, aipatzekoa da Elgoibarko mugimendu feministak azken 25 urteetan berdintasunaren alde egin duen lana eta esfortzua.

Elgoibarko emakume eta gizonen berdintasunerako I. Planaren mugarriak

- Berdintasun Arloa sortu da, eta aurrekontua ere izendatu da. Berdintasuna ikustarazi da.
- Emakumeen Kontseilua sortu da.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Tokiko Protokoloa martxan dago.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan erantzuteko protokolo berezia egin da.
- Jabetze Eskola sortu da.
- **...beste ekimen esanguratsu batzuk:**
- Sail arteko lanketa egin da genero zeharkakotasuna bultzatzeko.
- Udal mailako prestakuntza Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Politiketari.
- Gazteria Sailak ekimen ugari bultzatzen ditu berdintasuna sustatzeko (Beldur

Barik kanpaina, martxoak 8, sexu-aniztasuna...)

- Egun berezietan programak bultzatzen dira (martxoak 8, azaroak 25, ekainak 28...)
- Haizea emakume taldearentzako diru-laguntza.
- Lanbide Heziketaren astea (tailerrak ikastetxeetan eta emakumeak dituzten enpresa industrialetara bisitak).
- Hirigintzaren diagnostikoa generoaren ikuspegitik.
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako bateragarritasun

estrategien diagnostikoa Elgoibarko Udalerrian.

- Emakumeen kultur arteko topaketak.
- Ikastetxeetan Indarkeriaren prebentziorako programa eta sexu heziketa generoaren ikuspegitik.
- Berdinsarean parte hartzen du. (EUDEL/EMAKUNDE)

Elgoibarko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak EAEko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako V. Planaren printzipio eta lan-ildoak ditu abiapuntutzat.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Gobernantza

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, dioenari jarraiki, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantzak generoaren zeharkakotasuna gauzatzera eramango luke.

4/2005 Legeak, printzipio orokorretan, aldarrikatzen du aginte publikoek egiten dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia kontuan hartu behar dutela, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko (3. artikulua). Lege honen ondorioz, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: *“emakumeek eta gizonek dituzten egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea”*.

Emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa

Emakumeen ahalduntzeak emakumeen bizimoduari eragiten dioten baliabideen eta erabakien gaineko autoritatea eta boterea areagotzen du. Emakumeak banaka nahiz taldean jabetzeko

prozesuari buruz ari gara; izan ere, honen bitartez erabakiak hartzeko prozesuetako parte-hartzea areagotuko da, agintera iristen lagunduko du, eta eragina izateko ahalmenean ondorioa izango du.

Berdintasuna lortzeko eremu publikoan eta pribatuan, banakoen artean zein taldeen artean hainbat jarrera aldatu behar diren arren, horrekin batera balioak, portaerak eta sinesmenak ere aldatu behar dira, baita sexuei esleitutako roletan hautematen diren eta erabat barneratuta ditugun estereotipoak ere.

Gizarte-antolakuntza erantzunkidea

Gizarte-antolakuntza erantzunkideak bizimodu pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko erraztasunak ematea esan nahi du, etxeko eta zaintza arduetan gizonen erantzukizuna lortzea, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrei egokitzea eta zerbitzu sozio komunitarioak egokitzea.

Emakumeen aurkako indarkeria

lido estrategiko horrek epe laburrean eragina izan nahi du, biktimen babes eta arreta osorako neurriak eta baliabideak eratuta. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinak emakumeen eta gizonen desberdintasunetik eratorritako gizarte-arazo gisa ikusarazten dituzten sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak ere lehenetsi behar dira, pixkanaka indarkeria hori murriztu, eta azkenean, guztiz desagerrarazteko.

Lau ardatz hauetan oinarrituta, Elgoibarko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2013-2015 diseinatu da, helburu, jarduera, sail arduradun, sail parte-hartzaile, epe eta adierazleekin.

Elgoibarko Berdintasunerako II. Plan hau prozesu parte-hartzaile baten bidez egin da, non udaleko teknikariek, politikariek, Emakumeen Kontseiluak, gizarte eragileek eta herritarrek parte hartu duten.

Azkenik, plan hau EMAKUNDEra bidali da, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekiko egokitasunaren gaineko txostena egin dezan. Plana, bestalde, Udalaren Osoko Bilkuran onartuko da.

2. Berdintasunerako politiken esparru teorikoa eta lege-esparrua

Azken urteotan emakumeei eta gizonei aukera-berdintasunerako eskubidea aitortzen dieten lege nahiz arau juridiko ugari onartu dira nazioartean, Europan, estatuan, baita udalerrietan ere. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubideak berariaz aintzatestea da horien helburua, eta honako Berdintasun Plan honi behar adinako babes instituzionala eta legala ematea.

Jarraian, genero-politiken egitura teorikoan eta legalean nabarmendu diren mugarri batzuk aipatuko ditugu:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- EAEko emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko V. plana.
- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Plana 2013-2020.
- 4/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzkoa.
- Europako Gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua)

Legearen 28. artikuluan xedatzen denez, eskumenak beste administrazio publiko batzuei badagozkie ere, udalerriek haien osagarri diren hainbat jarduera egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak. Ildo horretatik, toki-administrazioaren garrantzia argia da, arauak esku hartzeko aukera ematen diete udalei, jarduerak bultzatzen, baita generoaren inguruan

ere herritarren beharrak eta itxaropenak betetzen laguntzen duten zerbitzuak eskain ditzaten, eta horren ondorioz, beste administrazio publiko batzuen eskumenak galtzeko edo oztopatzeko inolako arriskurik egon gabe.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

Lege honen baitan argi eta garbi zehazten dira zein diren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, administrazio maila bakoitzak dituen eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c.2. artikuluetan, zein Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.02 artikulua) jasota dauden eskumenak abiapuntutzat hartuta; izan ere, aipatutako lege eta arauak betebeharrak ezartzen dizkiete herri aginteei: bata, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eta erreala lortzeko baldintzak bultzatu eta oztopoak eraistea, eta bestea, berdintasuna sustatzea herri-aginteen politika eta ekintza guztietan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legeak honako zeregin hauek ezarri dizkio herri-administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia txertatzeko.
- Ekintza positiboko neurriak betetzea.
- Programak egitea, Jaurlearitzaaren plangintza orokorraren esparruaren baitan eta Foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren baitan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
- Tokian tokiko eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere, emakumeei informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzeko gizarte-

eskubideetarako irisgarritasuna bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere bai.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeentzat eta gizonentzat bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek tokiko eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Tokiko eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Plana

EAEko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako V. Planak frogatzen duenez, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, funtsezko aurrerapausoa da berdintasun-politiken esparruan. Izan ere, Euskal Administrazio Publikoaren jardunean, eta hala dagokionean, erakunde pribatuen jardunean ere bai, arautu egiten du berdintasun printzipio unibertsala, bai tratu bera lortzeari dagokionez, bai aukera-berdintasunari dagokionez.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Plana egiteari eta egituratzeari dagokionez, Legean oinarrizko lau eginkizun zehaztu dira:

1. Lehen eginkizuna: Plana gauzatzean aginte publikoen jardura arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
2. Bigarren eginkizuna: EAEko aginteen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea.
3. Hirugarren eginkizuna: hainbat esku-hartze arlotan, berdintasuna sustatzen duten neurriak egituratzeko eginkizuna.

4. Laugarren eginkizuna: oinarrizko edukiak definitzea.

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Aldundiren II. Plana 2013- 2020

Sei eraldaketa-ildo ezartzen ditu:

1. Zaintza duin eta unibertsalak. Helburua zaintza duin eta unibertsalak bermatzeko bidean aurrera egitea da, hau da, "batzuen zaintza ez dadila izan besteen -emakumeen- kontura izan"; ugalketa-lanaren errekonozimendua egitea, baina emakumeen zaintzaile-rola betikotu gabe, eta emakumezko zaintzaile profesionalen lan baldintzak hobetuz.
2. Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia. Ildo honetatik, asmoa laguntzea da, hau da, emakumeei bizitza autonomoak bizi izateko beharrezko baliabideak emango dizkien ekonomia bat eraikitzen laguntzea, hainbat neurriren bidez.
3. Bizitzaren iraunkortasunerako ingurunea. Ildo honetatik, lagundu egin nahi dugu bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetuko duen hiri, landa, erlazio eta giro ingurunea eraikitzen.
4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak. Indarkeria matxista zuzen eta zeharkakoaren adierazpenen kontra borrokatzea.
5. Sare eta praktika feministak. Emakumeen partaidetza soziopolitikoak sendotu nahi da dibertsitatearen onarpenetik eta sare-lanaren sustapenetik abiatuta.
6. Gobernu ona: Gobernu eredu demokratikoago baterantz jotzea, emakumeen partaidetza modu aktibo batez sustatzearen.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratutako Legea, batetik, honako premisa honetan oinarritzen da: "*emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza-eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da*". Bestalde, Legearen oinarrizko beste premisa baten arabera, legearen aurrean berdintasun formal erabatekoa onartzea funtsezkoa alderdia da, araugintzaren bidez hobetu behar dena. Araugintza hori dela medio, "*oraindik ere sexua dela eta gertatzen diren diskriminazio agerpen guztiei aurre egin behar zaie, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan, gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna bultzatzeko, eta hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak baztertzeko*".

Besteak beste, Legea honako funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

21.1 artikulua adierazten duenez, *"beraien eskumenez baliatzen direnean toki-erakundeek berdintasunerako eskubidea txertatuko dute, eta gainerako herri-administrazioekin lankidetzan arituko dira horretarako"*. Horrenbestez, 3/2007 Legeak tokian tokiko administrazioei dagozkien eskumenetara garamatza, hots, apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) orokorrean adierazten diren eskumenetara, eta EAEko udalerriei dagokienez, zehazki, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean adierazten diren eskumenetara.

Europako Gutuna, emakumeek eta gizonen arteko tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunari buruzkoa.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak sustatu du, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ekintza Komunitarioko 5. Programaren baitan. *"Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuei zuzentzen zaie, eta bertan, gutuna sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu"*.

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte) proiektuko bazkideetako bat da, eta gero eta gehiago dira gutuna sinatu duten udalak. Gutuna izenpetzen duten udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako plana egin eta gauzatzeko. Planak era parte-hartzailean egin behar du, ebaluazio-irizpideen arabera. Gainera, plana abian jartzeko behar adina baliabide izan behar dute udalek.

Europako Gutunak aitortzen duenez, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak *"esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartearen sustatzeko"*.

Arau horiek, bestalde, ondoren zehaztuko diren Berdintasunerako Printzipioetan oinarritzen dira: 4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

1. – TRATU-BERDINTASUNA.

Debekatuta daude sexuagatiko bereizkeria guztiak, bai zuzenekoak, bai zeharkakoak, bereizkeria horiek zein motatakoak izan diren erreparatu gabe.

Legearen ondorioetarako:

- a) Zuzeneko bereizkeria gertatuko da pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta -haurdun egoteagatik edo ama izateagatik, esaterako- beste pertsona bat baino okerrago tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria gertatuko da egintza juridiko, irizpide edo praktika batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, baldin eta egintza juridiko, irizpide edo praktika hori egokia eta beharrezkoa bada, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilita, justifikatzeko modukoa bada.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuarengatiko bereizkeria dela eta, administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean egongo dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen bitartean.

Euskal herri-aginteek bermatu behar dute, bereizkeria-egoerak eragin ditzaketan beste inguruabar batzuk ere gertatzen direlako, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeak, benetan, beren oinarritzko eskubideez baliatzen direla. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo gainerako baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2. – AUKERA-BERDINTASUNA.

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin erabiltzen dituztela bermatzeko, baita boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzeko eskubidea bermatzeko ere. Lege honen ondorioetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, esan beharra dago agintea eta baliabide eta gizarte-onura eta onura ekonomikoak

eskuratzeko abiapuntuaz edo hasierako baldintzez ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

3. – ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA.

Herri-agintek beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dituzte sexuen berdintasunerako prozesua burutzerakoan. Horiek horrela, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoak, nahiz bizi-baldintzei, jomugei eta beharrizanei dagozkien desberdintasunak errespetatu beharko dituzte, baita emakumeen eta gizonen kolektiboen arteko aniztasuna eta desberdintasunak ere.

4. – GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA.

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan. Horiek horrela, kasu horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarri beharko da.

Lege honen ondorioetarako, honako izango hau da *“Genero-ikuspegia txertatzea”*: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta maila horiei dagozkien planifikazio, exekuzio eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea.

5. – EKINTZA POSITIBOA.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortze aldera, herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz benetan gertatzen diren ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. – SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA.

Euskal agente publikoek sexuaren araberako rol sozialen eta estereotipoen desagertzea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira, eta horien ondorioz, emakumei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren

ardura izendatzen baitzaizkie; gainera, horrek sorrarazten duen balorazioa eta aitorten ekonomikoa eta soziala oso desberdinak dira.

7. – ORDEZKARITZA OREKATUA

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakiak hartzen direneko eremu guztietan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin. Lege honen ondorioetarako, kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkariak dutenean.

Euskadiko Berdintasun Legeak eragindako aurrera pausuak 2005 - 2010. Azken bost urteetako balantzea.

Emakundek egindako balorazioan Berdintasunerako Legea indarrean egon den lehen bost urte hauetan aurrerapen garrantzitsuak egin dira, esaterako, berdintasunerako organismoen eta koordinazio-organoen dagokionez. Berdintasunerako egiturak sortu dira Eusko Jaurlaritzako Departamentu, Foru Aldundi eta Udaletan. Udalen kasuan, berdintasunerako egiturak %38 igo dira. 2005ean 39 udalek zuten berdintasunerako unitateren bat eta 2010ean, berriz, 49 Udalek eta 5 mankomunitatek.

Aurrerapen handia eman da Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan goi-karguetan dagoen emakume kopuruari dagokionez eta, hein txikiagoan, udaletako goi-karguetan dagoen emakume kopuruari dagokionez. Ezin da gauza bera esan erakunde autonomoetako eta erakunde publikoetako goi-karguetan dagoen emakume kopuruari buruz.

Bestalde, oraindik ez da lortu elkarte eta erakunde profesional eta enpresarialetako, ekonomia sozialeko erakundeetako, sindikatu etako eta erakunde politikoetako zuzendaritza organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea.

Hauteskundeetara aurkezten diren hautagaitzen inguruan ezartzen den betebeharra alderdi guztiek bete dute, bai Eusko Legebiltzarrerako, bai Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, eta horrek eragin positiboa izan du bien osaketan. Nolanahi ere, emakume zerrenda-buruen presentziak txikia izaten jarraitzen du bi kasuetan, eta Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako datuak oraindik ere txarragoak dira.

Plangintzari buruz jasotako datuek agerian uzten dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak agenda politiko atala direla, ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoan, baita tokiko eta lurraldeko esparruan ere. Izan ere, esan daiteke berdintasun politikoa balio

sinbolikoa eta errealak hartzen ari dela, eta tokiko eta lurraldeko politiketan ere txertatzen ari dela.

Berdintasunera zuzendutako aurrekontuek gorakada handia izan dute udalen kasuan: 2010ean, adibidez, udalen heren batek, gutxi gorabehera, 100.000 € inguru izan ditu arlo horretarako; 2005ean, berriz, berdintasunerako planak zituzten udalen % 10ek baino gutxiagok zuten diru hori eskura.

Estatistikak eta azterlanak egokitzeari dagokionez EUSTATEk, Emakunderekin lankidetzan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko atal espezifiko bat sortu du bere webgunean, non hamar gai-eremuri buruzko 200 taula ageri diren.

Aurrerapenak izan dira hizkuntzaren erabilera ez sexistaren esparruan, hain zuzen ere, aldizkari ofizialetan argitaratutako dokumentuak eta hainbat webgune aztertuta, emaitzak positiboak dira, 2005ekoekin alderatuta. Gutxi gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko eta hiru lurraldeetako aldizkari ofizialetan argitaratutako dokumentuen heren batean hizkera ez-sexista erabiltzen da. 2005ean, berriz, dokumentuen % 2,9an bakarrik erabiltzen zuten hizkera ez-sexista.

3. Planaren helburuak eta ezaugarriak

Plan honen helburu orokorra da Udalaren kudeaketan genero ikuspegia txertatzea, eta horretarako, berdintasun arauemailea eta formala gainditu, eta berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea helburu duten berdintasunerako udal politikak martxan jarri behar dira.

Sexuaren araberako desberdintasunaz eta bereizkeriaz gain, beste inguruabar batzuk ere (maila, adina, desgaitasuna, sexu-aukera, immigrazioa, etab.) egon daitezkeela kontuan eduki beharra dago. Horretaz gain, kontuan izan behar da inguruabar horiek aldi berean gertatzen direnean, askotariko bereizkeria sortzen dela edo sor daitekeela, eta horrek kalte egiten diela emakumeen posizioari eta bizi-baldintzei, eta ondorioz, herritar gisa dagozkien eskubideak osoki baliatzeko aukerari. Horrenbestez, berdintasuna lortzeko bidean ez dute berdin aurrera egingo emakume guztiek, ezta gizon guztiek ere.

Plan hau emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko parte-hartzaitik abiatuta egin da, non datuak eguneratu eta udalerrian benetako berdintasuna lortzeko indarguneak eta hobetzeko esparruak identifikatu diren. Planaren inpaktua ebaluatzeko, halaber, I. Planean egindako jarduerak eta lortutako helburuak aztertu dira, eta horretaz gain, udal arloen kudeaketan genero perspektiba zein neurritan gehitu den aztertu da.


Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Elgoibarko Udalaren II. Planak honako ezaugarri hauek ditu:



- 3 urteko indarraldia du: 2013-2015 aldirako egin da.
- 2011-2015eko Legealdi Plana bat dator Berdintasun alorreko planarekin.
- Aurreko diagnostikoarekin alderatuta, era parte-hartzailean egin da, aurreko Planeko datuak eguneratuta eta ebaluatuta, eta Berdintasun Arlo eta Emakumeen Kontseiluaren zuzeneko parte-hartzearekin.
- Plana koordinatzen eta sustatzen duen egitura Berdintasun Arloa da.
- Plana irekia eta malgua da: ekintza zehatzak urteko plan operatiboetan zehaztuko dira.
- Plana ebalugarria da, eta lortutako helburuak betetzen diren etengabe ebaluatzeko adierazleak jasotzen ditu.
- Erantzukizuna duten Arloek eta Erakundeek, aurreikusitako denboran eta erabilgarri dauden baliabideekin, gara daitezkeen helburuak eta bidera daitezkeen arloak jasotzen ditu.

- Udalerriari dagokion tresna da, eta politikarien, teknikarien eta herritarren konpromisoa eskatzen du.

4. Diagnostikoan jasotzen diren hobetu beharreko arloak – beharren mapa

Diagnostikoan jasotako beharren mapa agertzen da atal honetan. Morez azpimarratu dira talde arduradunarekin landu ondoren lehenetsi diren beharrak.





emakumeen aurkako indarkeria

Sentsibilizazio/hezkuntza gehiago herriari zuzenduta. Arazo hau landu, kaleratu gizarte osoaren arazoa delako.

Informazio gehiago herriari zuzenduta indarkeria matxista identifikatzeko, salatzeko...

Batzorde bat sortu indarkerian inplikaturik dauden eragile guztiekin koordinazioa, sentsibilizazioa etab. lantzeko.

Lanketa konkretuak emakume etorkinekin. Kasu hauek zabaltzerakoan KONTUZ! Ez dira indarkeria sufrizten duten bakarrak.

Gizonak inplikatu Genero Indarkeriari aurre egiten.

Puntu ilunak konpontzeko urtero partida bat dedikatu.

Sare sozialen erabilera egokia egitea. Kezka handia.

Adituen prestakuntza beharrezkoa da.

Momentu honetan argizteriararen azterketa egiten dago Udala. Genero ikuspegitik ekarpenak egin daitezke?

Merkatariak inplikatu genero indarkeriaren prebentzioan.

Ikastetxeekin lanketa berezi bat egin barnean batzorde bat sortuz berdintasuna lantzeko

5. Jarduera-plana

Planaren Arloak kontuan hartuta, 2013-2015 aldian landuko diren helburuak eta ekintzak zehaztuko dira atal honetan.

Helburuek eta ardatzek aldarazi nahi den gizartearen errealitatea definitzen dute; lehentasuna zer egitegori eman behar zaion finkatzen dute eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bidez, lortutako emaitzak zehazten dituzte. II. Plan honetan arlo bakoitzerako helburuak zehaztuko dira, eta horietako bakoitzean gauzatu beharreko ekintzak hartuko dira kontuan, EAEko V. Berdintasun Planean jasotzen diren ekintza-multzoen arabera taldekatuta:

PROGRAMA	ARDATZAK	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	1 Ardatza: Berdintasunaren aldeko egiturak 2 Ardatza: Berdintasunaren aldeko komunikazioa 3 Ardatza: Udalan genero ikuspegia txertatzea 4 Ardatza: Lana eskuratu ahal izateko Udalan berdintasuna lantzea 5 Ardatza: Planaren ebaluazio jarraitua egitea 6 Ardatza: Partaidetza bultzatzea	6	27
EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIOEN ALDAKETA	1 Ardatza: Jabetze eskola 2 Ardatza: Balio aldaketa: kirola eta generoa 3 Ardatza: Balio aldaketa: kultura eta generoa 4 Ardatza: Balio aldaketa: sentsibilizazioa 5 Ardatza: Baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzea eta kontrolatzea	5	18
GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA	1 Ardatza: Balioak eta konpromisoak lantzea 2 Ardatza: Zaintzarako baliabideak eta zerbitzuak 3 Ardatza: Ingurune iraunkorra	3	6
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	1 Ardatza: Sentsibilizazioa eta prebentzioa 2 Ardatza: Arreta	2	12
GUZTIRA		16	63

Programa: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza

Udaletik egiazko berdintasunerantz doan gobernagarritasun –eredua lantzea.

1. Ardatza: Berdintasunaren aldeko egiturak

G.1. helburua

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko egiturak sustatzea.

Ekintzak:

G.1.1. Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitzea. **2013-2015**

G.1.2. Udaleko Berdintasun Saila mantentzea. **2013-2015**

G.1.3. Udalean sail arteko talde bat sortzea. **2014-2015**

G.1.4. Emakumeen Kontseiluari jarraipena eta indarra ematea. **2013-2015**

G.1.5. Berdintasunaren aldeko sare eta egituretan (Berdinsarea, Gizpuzkoako Foru Aldundiaren berdintasun teknikarien sarea etab.) parte-hartzen jarraitzea **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatua: Emakumeen Kontseilua

Adierazleak:

- Berdintasunerako udal aurrekontua (urtero).
- Berdintasunaren udal egitura mantentzea.
- Sail arteko taldea sortua (Bai/Ez); bilera kopurua eta akordioak (urtero).
- Berdintasun kontseiluak izandako bilera kopurua eta garatutako ekimenak (urtero).
- Berdintasunaren aldeko sare eta egituretan izandako partaidetza bilera kopurua eta lortutako akordioak.

2. Ardatza: **Berdintasunaren aldeko komunikazioa**

G.2. helburua

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko komunikazioa sustatzea.

Ekintzak:

G.2.1. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten egitasmoak eta jardunbide, tresna eta baliabide egokiak zabaltzea udal langile, politikari eta zerbitzuen artean. **2013-2015**

G.2.2. Hizkuntza eta irudiak era ez sexistan erabiltzea. **2013-2015**

G.2.3. Berdintasun Plana Udalean eta herrian hedatzea. **2013-2015**

G.2.4. Udal webgunean berdintasunaren arloko informazioa sartzeari (berriak, ekintzak eta egitasmoak, produktuak eta kanpainak, etab.). **2013-2015**

G.2.5. Noizbehinka, planean egindako aurrerapausoei buruzko informazioa udal-langileei eta komunikabideei helaraztea. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: Udalaren arlo guztiak. Emakumeen Kontseilua.

Adierazleak:

- Berdintasunerako Planean egindako barne-hedapenerako egin den ekintza kopurua (bitartekoak)
- Webgunean eta sare sozialetan gaiari buruzko informazio eguneratua izatea.
- Planari buruz langileei aldizka bidalitako informazio kopurua, motaren arabera.
- Planari buruz komunikabideetara bidalitako informazio kopurua, motaren arabera.
- Balorazio kualitatiboa, Udal langile eta politikariek hizkuntza eta irudien ez-sexistak direla-eta egiten duten erabilerari buruzkoa.

3. Ardatza: **Udalan genero ikuspegia txertatzea**

G.3. helburua:

Udal-arloetako eguneroko lanean genero ikuspegia sustatzea.

Ekintzak:

G.3.1. Udaleko langileei eta kargu politikoei berdintasunaren inguruko prestakuntza praktikoa ematea genero ikuspegia nola txertatzen den jakiteko, emakume eta gizonen

arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17. artikuluan ezartzen denaren arabera. **2013-2015**

G.3.2. Berdintasun Sailaren eta beste sailen arteko elkarlanerako bilerak egitea, genero ikuspegia lantzeko. **2013-2015**

G.3.3. Arlo ezberdinek egiten dituzten memorieta pertsonen datuak ematen badira, hauek sexuaren arabera bereiztea, eta zerbitzuak kontratatzen direnean ere gauza bera eskatzea. **2013-2015**

G.3.4. Udalaren diru-laguntzen pleguetan eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea, jarraipena egitea eta eragina baloratzea. **2013-2015**

G.3.5. Udal araudi berrietan generoak duen eraginari buruzko aurretzeko txostena egiten hastea. **2014-2015**

G.3.6. Balorazio-batzordeetan (sariak, hautaketa-epaimahaietan...) sexuen arteko parte-hartze orekatua bultzatzea, emakume eta gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4. b); 5., 6., 7. eta 8. artikuluan ezartzen denaren arabera. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: Udaleko arlo guztiak.

Adierazleak:

- Berdintasun arloan eskainitako ikastaro kopurua eta mota, urtearen arabera. Parte-hartzea; Balorazioak.
- Berdintasun arloa eta beste arloen artean egindako bilera kopurua eta sortutako elkarlanak (urtero)
- Memorieta datuak sexuaren arabera bereiztea (bai/ez; %; arloaren arabera).
- Genero ikuspegitik berrikusi diren diru-laguntza pleguen eta hitzarmenen kopurua (%).
- Generoak diru-laguntzetan eta hitzarmenetan duen eraginari buruzko balorazioa.
- Generoaren eraginari buruzko aurretzeko txostena eginda duteneko arau berriak (bai/ez; kopurua; neurriak).
- Sexuen arteko parte-hartze orekatua izan duten balorazio-batzordeak (%).

4. Ardatza: udal enplegua eskuratzeko berdintasuna lantzea

G.4. helburua:

Udalean lana eskuratzeko orduan genero-ikuspegia sustatzea.

Ekintzak:

G.4.1. Udalean ekintza positiboak egitea emakumeek ordezkari gutxi duteneko lanpostuak betetzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4. a) artikuluan ezartzen denaren arabera. **2013-**

2015

G.4.2. Udaleko enplegu-eskaintzen baldintza pleguetan genero ikuspegia txertatzea.

2013-2015

G.4.3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten gaiak oposaketetako gaien artean egotea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17.4. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2013-2015

G.4.4. Amatasun eta aitatasun baimenak direla-eta, ordezkariak egiteko aukera baloratzea. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: arlo guztiak.

Adierazleak:

- Emakumeak postu maskulinizatuetan sartzeko egindako ekimenak (urtekoa), ekintza positiboaren kopurua lanpostuaren arabera (urtekoa).
- Genero-ikuspegia aintzat hartuta berrikusi diren argitalpenak, baldintza-pleguak eta enplegu-eskaintzak (bai/ez; jarraipena).
- Oposaketetan genero-berdintasunaren politikekin zerikusia duten gai-zerrenda kopurua eta mota.
- Amatasun eta aitatasun baimenengatiko ordezkariak (kopurua; urtero)

5. Ardatza: Planaren ebaluazio jarraitua

G.5. helburua:

Berdintasun planaren ebaluazio jarraituaren sistematizazioa bultzatzea.

Ekintzak:

- G.5.1. Berdintasun Planaren ebaluazio jarraitua egiteko tresnak sortzea. **2013**
- G.5.2. Planaren ebaluazioa egiteko iturri ezberdinetako informazioa jasotzea. **2013-2015**
- G.5.3. Berdintasun Planaren urteko memoria egitea. **2013-2015**

Sail arduradunak: Berdintasuna

Inplikatuak: arlo guztiak. Emakumeen Kontseilua

Adierazleak:

- Berdintasun Planaren ebaluazio jarraitua egiteko tresnak sortu diren (bai/ez).
- Berdintasun Planaren ebaluaziorako erabilitako iturriak (kopurua; mota; parte-hartzaileak; ondorioak)
- Berdintasun Planaren urteko memoria egin den (bai/ez).

6 Ardatza: parte-hartzea bultzatu

G.6. helburua:

Herriko eragile ezberdinen parte-hartzea sustatzea Berdintasun Planaren egitasmoak burutzeko.

Ekintzak:

- G.6.1. Mugimendu feministak eta emakumeen elkarre-mugimenduak berdintasun politiken diseinuan eta garapenean parte-hartzea. **2013-2015**
- G.6.2. Partaidetzarako guneak sortzen jarraitzea antzematen diren interesen arabera. **2013-2015**
- G.6.3. Berdintasunaren alde dauden Gizonen Taldea bultzatzea. **2014-2015**
- G.6.4. Emakume kirolarien taldea sortzea. **2013-2015**

Sail arduradunak: Berdintasuna, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea

Inplikatuak: Euskara, Kultura, Gazteria, Ongizatea, Kirola eta gizarte eragileak

Adierazleak:

- Emakumeen Kontseiluan landutako gaiak/bilera kopurua.
- Abian jarri diren partaidetzarako mekanismo/gune kopurua eta gizarte eragileen parte-hartzea eta ondorioak/prosamen berriak.
- Gizonen Taldea bultzatzeko egindako ekimen kopurua, mota, ondorioak.
- Gizonen Taldea sortu den (bai/ez).
- Emakume kirolarien talde berria sortu den (bai/ez).

Programa: Emakumeen jabetzaren eta balioen aldaketa

Emakumeen partaidetza soziopolitiko indartzea eta gizarte-eginkizunen eta estereotipoen desagertzea, sare-lanaren eta generoaren arabera.

1. Ardatza: Jabetze eskola

J.1. helburua

Emakumeen jabetzaren sustatzea emakumeen aniztasuna kontuan izanik.

Ekintzak:

J.1.1. Jabetze eskolaren lan ildoak eta lehentasunak zehaztea. 2013

J.1.2. Jabetze eskolaren urteko programa diseinatzea eta martxan jartzea. 2013-2015

J.1.3. Jabetze eskolaren zabalkundea egitea. 2013-2015

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuenak: Emakumeen Kontseilua

Adierazleak:

- Jabetze eskolaren lan ildoak eta lehentasunak zehaztuta dauden (bai/ez).
- Jabetze eskolan antolatutako ekintza kopurua, mota, adinaren arabera parte-hartzea eta balorazioa.
- Emakume etorkinek eta ezintasuna duten emakumeek parte hartzen duten (bai/ez).
- Emakume etorkinak eta ezintasuna duten emakumeek parte-hartzeko ekintza berezirik egin den (bai/ez; kopurua eta mota).
- Jabetze eskolaren zabalkundea egin den (bai/ez).

2. Ardatza: balio aldaketa: kirola eta generoa

J.2. helburua

Kirolean berdintasunaren aldeko balioak bultzatzea, emakumeak ikustaraztea eta kirol elkarten eta erakundeen funtzionamenduan eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.

Ekintzak:

J.2.1. Kirolaren esparruan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egitea, ekintza lerroak zehaztea eta abian jartzea. **2013**

J.2.2. Kirol arloko udaleko diru-laguntza eta sarietan genero ikuspegia txertatzea eta jarraipena eta inpaktuaren balorazioa egitea. **2013-2015**

J.2.3. Kirol arloko udaleko diru-laguntza eta lehiaketetan genero ikuspegia txertatzea. **2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna.

Inplikatuak: Kirola; kirol elkarteak, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea.

Adierazleak:

- Kirolaren esparruan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egitea eta ekintza lerroak zehaztea.
- Emakumeen kirol praktika sustatzeko ekintza kopurua eta mota.
- Udalak kirolaren arloan ematen dituen diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatu den (bai/ez)
- Udalak kirolaren arloan ematen dituen diru-laguntzetan txertatu den genero ikuspegiaren jarraipena eta eragina.

3. Ardatza: balio aldaketa: kultura eta generoa

J.3. helburua

Kulturaren alorrean berdintasunaren aldeko balioak bultzatzea, emakumeak ikustaraztea eta kultur elkarten eta erakundeen funtzionamenduan eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.

Ekintzak:

J.3.1. Kulturaren arloan emakumeen gaiak eta berdintasunaren balioak sustatzen dituzten edukiak programatzea. **2013-2015**

J.3.2. Kulturaren emakume sortzaileen lanak programatzea. **2013-2015**

J.3.3. Kultura arloko udaleko diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatzea, jarraipena eta inpaktuaren balorazioa egitea. **2013-2015**

J.3.4. Belaunaldien arteko programan emakumeak historiari eta kulturari egin dizkieten ekarpenak lantzea. **2014**

J.3.5. Jaiaren programazioan genero ikuspegia txertatzea. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna.

Inplikatuak: Euskara; Kultura; Gazteria; Ongizatea, kultur elkarteak, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea.

Adierazleak:

- Kulturaren emakumeen gaiak eta berdintasunaren balioak sustatzen dituzten programatutako edukien portzentajea.
- Kultura arloan emakume sortzaileei buruz programatutako lanaren portzentajea.
- Udalaren kultura arloko diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatuta dagoen (bai/ez).
- Udalaren kultura arloko diru-laguntzetan genero ikuspegiaren jarraipena egiten den eta eragina neurtzen den.
- Belaunaldien arteko programan emakumeak historiari egin dizkieten ekarpenak lantzen diren (bai/ez; parte-hartzea; balorazioak).
- Jaietako programazioan genero ikuspegia txertatuta dagoen (bai/ez).

4. Ardatza: **balioen aldaketa: sentsibilizazioa**

J5. helburua

Balioen aldaketa sustatzea, sexuaren arabeko gizarte-rolak eta estereotipoak ezabatuta.

Ekintzak:

J.4.1. Maskulinitasun berriei buruzko tailerrak abian jartzea adin ezberdinetako gizonekin. **2013-2015.**

J.4.2. Sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea egun berezietan, adibidez, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontra borrokatzeko Nazioarteko Egunean eta ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Nazioarteko Egunean. **2013-2015.**

J.4.3. Ikastetxeekin lanketa egitea hezkidetza programak bultzatzen jarraitzeko. **2013-2015.**

Sail arduraduna: Berdintasuna.

Inplikatuak: Gazteria, Ongizatea, sustapen ekonomikoa, ikastetxeak, elkarteak, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea.

Adierazleak:

- Maskulinitasun berriari buruzko tailerretan parte hartu duten gizonak adinaren arabera, balorazioak.
- Egun berezietan antolatu diren ekimenak: kopurua, parte-hartzea eta balorazioak.
- Ikastetxeek bultzatu dituzten hezkidetza programak: kopurua eta mota.

5. Ardatza: baliabide ekonomiko eta sozialen irisgarritasuna eta kontrola

E.3. helburua

Emakumek enplegua eskuratzeko dituzten aukerak eta baldintzak hobetzea, emakumeen sustapen profesionala hobetzea

Ekintzak:

- J.5.1. Eskualdeko enplegu planaren barruan emakume langabetuei zuzendutako prestakuntza bultzatzea. **2014-2015**
- J.5.2. Emakumeei zuzendutako lan orientazioa bultzatzea. **2014-2015**
- J.5.3. Emakumeen ekintzailatza bultzatzeko ekimenak antolatzea. **2014-2015**
- J.5.4. Emakumeak industriaren esparrura erakartzeko ekimenak bultzatzea. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: Sustapen Ekonomikoa; gizarte eragileak; Emakumeen Kontseilua, DEBEGESA, Lanbide, SARTU.

Adierazleak:

- Eskualdeko enplegu planaren barruan, emakume langabetuei zuzendutako prestakuntza jardueren kopurua, parte-hartzea.
- Emakumeei zuzendutako lan orientaziorako antolatutako saioak, parte-hartzea.
- Emakumeen sustapena bultzatzeko antolatutako ekimenen kopurua, parte-hartzea.
- Emakumeak industriaren esparrura erakartzeko antolatutako ekimen kopurua, mota, parte-hartzea.

Programa
Gizarte-antolakuntza erantzunkidea
Bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako eredu lantzea

1. Ardatza: balioak eta konpromisoak lantzea

GE.1. helburua:

Erantzunkidetasunaren eta zaintzaren balioa bultzatzea

Ekintzak:

GE.1.1. Emakumeen Kontseiluaren barruan erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera sozial berriei buruzko hausnarketa egitea, ekintza plana zehaztea eta programa abian jartzea. **2014-2015**

GE.1.2. Erantzunkidetasunari buruzko tailerrak antolatzea gizonentzat. **2013-2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea

Adierazleak:

- Erantzunkidetasuna eta zaintza - Hausnarketa egin den (bai/ez)
- Erantzunkidetasuna eta zaintza - Ekintza plana zehaztuta dagoen (bai/ez).
- Gizonentzat, erantzunkidetasunaren inguruan antolatutako tailer kopurua, parte-hartzea, balorazioak

2. Ardatza: zaintzarako baliabideak eta zerbitzuak

GE.2. helburua:

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko baliabideak eta zerbitzuak hobetzea

Ekintzak:

GE.2.1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako bateragarritasun estrategien diagnostikoan jasotako jarduera lerroen bideragarritasuna aztertzea. **2014-2015**

GE.2.2. Bideragarritasuna aztertu ondoren, ekimenak martxan jartzea. **2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna; Gizarte Ongizatea

Inplikatua: Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea

Adierazleak:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako bateragarritasun estrategien diagnostikoan jasotako jarduera lerroen bideragarritasuna aztertu den ala ez eta ondorioak.
- Martxan jarritako neurriak. Kopurua eta mota.

3. Ardatza: **ingurune iraunkorra**

GE.3. helburua:

Generoaren aurrean sentikorra den herriaren planifikazioa bultzatzea

Ekintzak:

GE.3.1. Generoaren ikuspegitik egin den Hirigintzako Diagnostikoaren jarraipena eta zabalkundea egitea. **2013-2015**

GE.3.2. Diagnostikoan parte hartu zuen emakume taldearekin biltzea egindako aurrerapenak azaltzeko. **2014**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatua: Hirigintza, Emakumeen Kontseilua, Diagnostikoan parte hartu zuen emakume taldea.

Adierazleak:

- Martxan jarritako neurriak. Kopurua eta mota.
- Zabalkunderako egin den ekintza kopurua.
- Diagnostikoan parte hartu zuen emakumeen taldearekin egon den (bai/ez).

Programa

Emakumeen aurkako indarkeria

Indarkeria zuzenaren eta zeharkako indarkeriaren (egiturazkoa eta kulturala) arrazoiei eta horien adierazpenei aurre egitea, indarkeria matxistarik gabeko bizitza eraikitzeko.

1. Ardatza: sentsibilizazioa eta prebentzioa

EI.1. helburua:

Indarkeria matxistaren aurkako prebentzioa lantzea.

Ekintzak:

EI.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuei erantzuteko protokolo bereziari jarraitzea. **2013-2015.**

EI.1.2. Udalerriko gizonen parte-hartzea sustatzea emakumeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazio eta prebentzio-programetan. **2013-2015**

EI.1.3. Jaietako programazioan eraso sexistekiko udal konpromisoa azpimarratzea eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea. **2013-2015**

EI.1.4. Herritarren artean norberaren segurtasuna bultzatzeko aholkuak zabaltzea. **2013**

EI.1.5. Gazteentzako kanpainak egiten jarraitzea indarkeriazko portaera sexistak prebenitzeko, eta tratu egokiak bultzatzeko (autodefentsa, maskulinitate berriak, sare sozialak, beldur barik...). **2013-2015**

EI.1.6. Herritarrekin eta gizarte eragileekin lan egitea jendaurrean indarkeria matxistaren gaitzespena lantzeko eta kaleratzeko. **2013-2015.**

EI.1.7. Prestakuntza antolatzea emakumeen kontrako indarkeriaren arazoaren arrazoiak eta ondorioak zein diren jakiteko. **2013.2015**

Sail arduraduna: Berdintasuna

Inplikatuak: Ongizatea, Gazteria, jai batzordea, ikastetxeak, gizarte eragileak, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea

Adierazleak:

- EAEko emakumeen aurka egin diren zenbat eraso salatu diren publikoki, sexuaren eta karguaren arabera banatuta.

- Udalerriko emakumeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazio- eta prebentzio-programetan parte hartu duten gizonen kopurua, adinaren arabera.
- Jaietako programazioan, eraso sexisten aurrean udalaren konpromisoa azpimarratu den.
- Norberaren segurtasuna bultzatzeko aholkuak herritarren artean zabaltu diren (bai/ez).
- Gazteei zuzendutako tailer kopurua eta mota, parte-hartzea, balorazioa.
- Jai giroan eraso sexistak prebenitzeko sentsibilizazio antolatutako ekintza kopurua, parte-hartzea, sexuaren arabeko balorazioa.
- Herritarrekin eta eragile sozialekin emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena lantzeko eta kaleratzeko egin diren ekimenak, parte-hartzea eta ondorioak.
- Antolatutako prestakuntza kopurua, parte-hartzea eta balorazioak.

2. Ardatza: **arreta**

El.2. helburua:

Emakume biktimenganako babes eta arreta osoa bermatzea.

Ekintzak:

EI.2.1. Emakumeen kontrako indarkeriaren Protokoloaren mahaiarekin koordinatuta egotea.

2013-2015

EI.2.2. Noizean behin, teknikarien eta politikarien artean Protokoloaren jarraipenari buruzko informazioa zabaltzea. **2013-2015**

EI.2.3. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko Gipuzkoako Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta Elgoibarren dauden zerbitzuen berri ematea. **2013-2015**

EI.2.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenganako arretan diharduten eragileentzako trebakuntza-ekintzak egiten jarraitzea. **2013 -2015**

EI.2.5. Indarkeria matxista sufritu duten emakumeekin programa bat martxan jartzea.

Sail arduraduna: Berdintasuna;

Inplikatuak: Gazteria, Ongizatea, Udaltzaingoa, gizarte eragileak, Emakumeen Kontseilua, Gizonen Taldea

Adierazleak:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren Protokoloaren koordinazio mahaiaren baitan egin diren ekimenak, kopurua eta mota.
- Protokoloaren jarraipenari buruzko informazioa zabaldu den (bai/ez).
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko Gipuzkoako Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta Elgoibarren dauden zerbitzuen informazioa zabaldu den.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan diharduten eragileekin egin diren prestakuntza saioen kopurua, balorazioa eta karguaren araberako partaidetza.
- Indarkeria matxista sufritu duten emakumeekin programa bat martxan jarri den ala ez. Partaidetza eta balorazioa.

6. Planaren kudeaketa

Koordinazioa eta programazioa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua jasotzen duenaren arabera tokiko administrazioek, euren eskumenen esparruan, egiturak egokitu behar dituzte, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruz aholkatzeaz arduratuko den unitate administratibo bat egon dadin.

Plan horren jarduera-programatik eratorritako helburuak eta ekintzak erdiesteko, beharrezkoa da Planaren sustapenerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako egiturak izatea. Sustapenerako Talde Eragilea Berdintasun arloan kokatuta dago, eta zinegotzi batek eta teknikari batek osatzen dute.

Sustapen egitura honen zereginak honako hauek izango dira Planak dirauen bitartean:

- Berdintasunari dagokionez urteko lehentasunak zehaztea.
- Plangintza bat sortzea dauden baliabideak oinarritzat hartuta (ekonomikoak, pertsonalak etab.)
- Ekintzak aurrera eramane daitezkeen egituraren partaideen artean ardurak banatzea.
- Egiten diren ekintzen jarraipena eta balorazioa egitea.

Talde eragile hau aldizka Emakumeen Kontseiluarekin bilduko da ekintzak planifikatzeko eta aurrera eramateko.

Maila politikoan, Berdintasun Sailak *Pertsonen Batzordean* parte hartzen du, Ongizate, Gazteria eta Sustapen Ekonomikorako sailekin batera, non berdintasunaren alorrean burutzen diren ekimenen jarraipena eta balorazioa egiten den.

Sailen arteko talde teknikoa eratzea ere aurreikusten da.

Bestalde, Emakumeen Kontseilua eratu da, herritarren parte-hartzerako organoa alegia. Kontseiluaren funtzioak, bestalde, ondorengoak dira:

- a)Udalaren politika bideratzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko. Aukera berdintasuna lortze aldera, Udalaren jarduera-planak bultzatzea eta plan horien jarraipena egitea.
- c) Jarduera lerro orokorrak zehazterako orduan eta aurrekontuko lehentasunak ezartzerako orduan, Tokiko Administrazioari aholkua ematea.
- d) Kontseiluan parte hartzen ez duten pertsonak edo taldeek proposatutako iradokizunak eta ekimenak jasotzea. Aukera berdintasuna bultzatzeko ideia berritzaileak sustatzea.
- e) Kontseiluari aditzera ematen zaizkion jarrera diskriminatzaileen salaketa guztiak, behar bezala oinarrituta daudenak, jasotzea eta organo eskudunei bideratzea, baldin eta jarrera horiek berdintasun printzipioa urratzen badute edo emakumeak iraintzen badituzte.
- f) Emakumeen sustapenerako jarduerak bideratzen dituzten elkarten eta gainerako erakundeen arteko partaidetza, lankidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.
- c) Kontseiluko kideak onartzea edo kontseilutik kanpo uztea.

II. Plan hau programatzeko, Urteko Programa Operatiboak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiru hilabeteetan. Urteko Plan Operatibo horrek berdintasuna sustatzeko egiturak adostuko ditu Emakumeen Kontseiluarekin eta sail arteko talde teknikoarekin batera, eta ondorengo atalak izango ditu kontuan:

Helburuak, ekintzak, egin beharreko jarduerak, inplikaturako arloak, egutegia, aurrekontua eta ebaluaziorako adierazleak kontuan hartuko dituzten lan-planak egingo dira.

Programa Operatibo bakoitzerako aurrekontua zehaztuko da, non planifikaturako ekintza bakoitzak aurreikusitako aurrekontua izango duen.

Planaren ebaluazioa

II. Berdintasun Planaren ebaluazioa jarraitua egingo da, eta urteko memoria bat egingo da.

Ebaluazioa maila ezberdinetan egingo da:

- Betetze mailaren ebaluazioa: plan operatiboa jarraituz ekintzen jarraipen kuantitatiboa egingo da, hurrengo aldagaiak kontutan izanik:
 - eginga

- partzialki egina
- ez egina
- egina baina ez zegoen planifikatuta
- arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen prozesuaren indar-guneak eta hobetzeko arloak aztertuko dira, planean parte-hartzen duten udal teknikari, politikari eta gizarte eragileei galdetuta. Besteak beste, ondoko esparruei erreparatuko zaie: inplikazioa, lanerako tresnak eta koordinazioa, komunikazioa, partaidetza-prozesuak, etab.
- Eraginaren ebaluazioa: berdintasun politikek dituzten eraginak aztertuko dira eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunean eman diren aurrerapausoak neurtuko dira.

Bestalde, Emakundek ebaluaziorako urtero eskatzen duen planen jarraipenerako galdetegi elektronikoa beteko da. Prozesuaren ebaluazioa eta inpaktua aurrera eramateko, elkarrizketak, galdeketak etab. erabiliko dira.

Udal aurrekontua

3 urtetarako, berdintasunerako II. Plana burutzeko aurrekontua 177.900,00 eurokoa izango da gutxi gorabehera.

Diru-laguntzak

Emakunderen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun arloko diru-laguntzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako departamentu ezberdinek (Kultura, Hezkuntza, Hirigintza, etab.) kudeatutako diru-laguntzak.

7.kronograma

	2013	2014	2015
G.1.1. Udaleko aurrekontuetan berdintasunaren esparruko diru-partida bat egokitzea.	X	X	X
G.1.2. Udaleko Berdintasun Saila mantentzea.	X	X	X
G.1.3. Udalean sail arteko talde bat sortzea.		X	X
G.1.4. Emakumeen Kontseiluari jarraipena eta indarra ematea.	X	X	X
G.1.5. Berdintasunaren aldeko sare eta egituretan parte hartzea.	X	X	X
G.2.1. Gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzen duten egitasmoak eta jardunbide egokiak, tresnak eta baliabideak zabaltzea udal langileen, politikarien eta zerbitzuen artean.	X	X	X
G.2.2. Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista egiten jarraitzea.	X	X	X
G.2.3. Berdintasun Plana Udalean eta herrian hedatzea.	X	X	X
G.2.4. Udalaren webgunean berdintasunaren arloko informazioa sartzea (berriak, ekintzak eta egitasmoak, produktuak eta kanpainak, etab.).	X	X	X
G.2.5. Noizbehinka, planean egindako aurrerapausoei buruzko informazioa helaraztea	X	X	X
G.3.1. Udaleko langileei eta kargu politikoei berdintasunaren inguruko prestakuntza praktikoa eskaintzea.	X	X	X
G.3.2. Berdintasun Sailaren eta beste sailen arteko elkarlanerako bilerak egitea genero ikuspegia lantzeko.	X	X	X
G.3.3. Arlo ezberdinek egiten duten memorietan pertsonen datuak ematen badira, hauek sexuaren arabera bereiztea, eta zerbitzuak kontratatzen direnean ere gauza bera eskatzea.	X	X	X
G.3.4. Udalaren diru-laguntzen pleguetan eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea, jarraipena egitea eta horren eragina baloratzea.	X	X	X
G.3.5. Udal araudi berrietan generoaren eraginari buruzko aurretiazko txostena egiten hastea.		X	X
G.3.6. Balorazio-batzordeetan (sariak, hautaketa-epaimahaiak...) sexuen arteko parte-hartze orekatua bultzatzea.	X	X	X
G.4.1. Udalean ekintza positiboak egitea emakumeek ordezkari gaxi duten lanpostuak betetzeko.	X	X	X
G.4.2. Udaleko enplegu-eskaintzen baldintza pleguetan genero ikuspegia txertatzea.	X	X	X
G.4.3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten gaiak oposaketetako gaien artean txertatzea.	X	X	X
G.4.4. Amatasun eta aitatasun baimenen ordezkariak baloratzea .	X	X	X
G.5.1. Berdintasun Planaren ebaluazio jarraitua egiteko tresnak sortzea.	X		

G.5.2. Planaren ebaluazioa egiteko hainbat iturritatik informazioa jasotzea.	X	X	X
G.5.3. Berdintasun Planaren urteko memoria egitea.	X	X	X
G.6.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren parte-hartzea berdintasun politikak diseinatu eta garatzerako orduan.	X	X	X
G.6.2. Partaidetzarako guneak sortzen jarraitzea sortzen diren interesen arabera.	X	X	X
G.6.3. Gizonen Taldea bultzatzea.		X	X
G.6.4. Emakume kirolarien taldea sortzea.	X	X	X
J.1.1. Jabetze eskolaren lan ildoak eta lehentasunak zehaztea.	X		
J.1.2. Jabetze eskolaren urteko programa diseinatu eta martxan jartzea.	X	X	X
J.1.3. Jabetze eskolaren zabalkundea egitea.	X	X	X
J.2.1. Kirolaren esparruan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egitea eta ekintza lerroak zehaztea.	X		
J.2.2. Udalak kirolaren arloan ematen dituen diru-laguntza eta sarietan genero ikuspegia txertatzea eta jarraipena egitea, eta aldi berean, inpaktuaren balorazioa egitea.	X	X	X
J.2.3. Udalak kirolaren arloan ematen dituen diru-laguntza eta lehiaketetan genero ikuspegia txertatzea.			X
J.3.1. Kultura arloan emakumeen gaiak eta berdintasunaren balioak sustatzen dituzten edukiak programatzea.	X	X	X
J.3.2. Kultura arloan emakume sortzaileen lanak programatzea.	X	X	X
J.3.3. Udalak Kultura arloan ematen dituen diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatzea eta jarraipena egitea, eta aldi berean, inpaktuaren balorazioa egitea.	X	X	X
J.3.4. Belaunaldien arteko programan emakumeak historiari eta kulturari egin dioten ekarpenak lantzea.		X	
J.3.5. Jaiei programazioan genero ikuspegia txertatzea.	X	X	X
J.4.1. Maskulinitasun berriei buruzko tailerrak abian jartzea adin ezberdinetako gizonekin.	X	X	X
J.4.2. Egun berezietan sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea.	X	X	X
J.4.3. Ikastetxeekin batera lan egitea hezkidetzak programak bultzatzen jarraitzeko.	X	X	X
J.5.1. Eskualdeko enplegu planaren baitan, emakume langabetuei zuzendutako bultzatzea.		X	X
J.5.2. Emakumeei zuzendutako lan orientazioa bultzatzea.		X	X
J.5.3. Emakumeen ekintzailetasuna bultzatzeko ekimenak antolatzea.	X	X	X
J.5.4. Emakumeak industriarekin lotutako lanak sustatzeko programetara erakartzeko ekimenak bultzatzea.	X	X	X
GE.1.1. Emakumeen Kontseiluaren barruan erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera sozialari buruzko hausnarketa egitea, ekintza plana zehaztea eta programa martxan jartzea.		X	X
GE.1.2. Gizonei zuzendutako erantzunkidetasun tailerrak antolatzea.	X	X	X
GE.2.1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako		X	X

bateragarritasun estrategien diagnostikoan ageri diren ekintza lerroen bideragarritasuna aztertzea.			
GE.2.2. Bideragarritasuna aztertu ondoren, ekimenak martxan jartzea.			X
GE.3.1. Generoaren ikuspegitik egin den Hirigintzako Diagnostikoaren jarraipena eta zabalkundea egitea.	X	X	X
GE.3.2. Diagnostikoan parte hartu duen emakumeen taldearekin biltzea egindako aurrerapenak azaltzeko.		X	
El.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan erantzuteko protokolo bereziari jarraitzea.	X	X	X
El.1.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazio- eta prebentzio-programetan udalerriko gizonen parte-hartzea sustatzea.	X	X	X
El.1.3. Jaietako programazioan, eraso sexisten inguruan Udalaren konpromisoa azpimarratzea eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea.	X	X	X
El.1.4. Norberaren segurtasuna bultzatzeko herritarren artean aholkuak zabaldu .	X	X	X
El.1.5. Gazteentzako kanpainak egiten jarraitzea indarkeriazko portaera sexistak prebenitzeko eta tratu egokiak bultzatzeko.	X	X	X
El.1.6. Herritarrekin eta eragile sozialekin lan egitea jendaurrean indarkeria matxistaren gaitzespena lantzeko eta kaleratzeko.	X	X	X
El.1.7. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren kausak eta ondorioak ezagutzeko prestakuntza antolatzea.	X	X	X
El.2.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren Protokoloaren mahaiarekin koordinatuta jarraitzea.	X	X	X
El.2.2. Noizean behin, teknikarien eta politikarien artean Protokoloaren jarraipenari buruzko informazioa zabaltzea.	X	X	X
El.2.3. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko Gipuzkoako Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta Elgoibarren dauden zerbitzuen berri ematea.	X	X	X
El.2.4. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko trebakuntza-ekintzak egiten jarraitzea arretan inplikaturako eragileei.	X	X	X
El.2.5. Indarkeria matxista sufritu duten emakumeekin programa bat martxan jartzea.	X	X	X

Eranskina: **Berdintasunaren Abezea**

Atal honetan oinarriko kontzeptu eta ezagupen batzuk jasotzen dira berdintasunaren gaira hurbiltzen den edonorentzat.

Genero-mainstreaminga edo zeharkakotasuna, zer da ?

Ez dago zuzeneko itzulpenik. Genero-berdintasunerako politika espezifikoaren helburuak politika orokorretan txertatzean datza.

- Esku-hartze publikoaren praktikan dagoen estrategia iraunkorra da, eta horrek, esaterako, ekintza positibo edo plan batetik bereizten du, azken horiek aldi baterako direlako soilik.
- Xedea da, sexuagatiko edozein diskriminazio-mota errotik desagerrarazteaz gain, politika publikoaren prozedurak eta eraginkortasuna hobetzea.
- Aldaketak eragiten ditu udal-kudeaketaren irizpidetan, prozeduretan eta emaitzetan.
- Generoari dagokionez, kontzeptu horren ardatza da politika neutrorik ez dagoela onartzea, eta hortaz, herritar-talde eta pertsona-talde bateko gizonen eta emakumeen iguripenak, baldintzak, gizarte-egoera, egoera ekonomiko eta politikoak kontuan hartu behar direla.
- Desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira udalerrian egiten diren herri-politikak diseinatu, planifikatu, burutu eta ebaluatzerako orduan.

Genero-ikuspegia abian jartzeko 4 OINARRIAK...

- PLANA:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, ezinbestekoa da plan bat edukitzea.
- PERTSONAK:** pertsonak behar dira, teknikariak eta profesionalak, plana sustatzeko.
- AURREKONTUA:** beharrezkoa da berdintasunerako baliabide eta aurrekontu espezifikoak eskura izatea.
- PARTE-HARTZEA:** Udala osatzen duten eragile guztien eta herritarren lankidetzak funtsezkoa da, emakumeen eta gizonen parte-hartzea bermatzeko (kanpo parte-hartzea). Udalean edo Udalarentzat lan egiten duten guztien partaidetza (barne parte-hartzea) ere beharrezkoa da.

Zer egin behar duzu genero-ikuspegia aplikatzeko? 15 gako

1. Agintari gorenaren eta/edo aginte postuen berariazko konpromisoa edukitzea genero-ikuspegia udal-kudeaketan txertatzearen ondorioz sor litekeen lana arintzeko eta horretan laguntzeko.
2. Barne eta kanpo-komunikazio parekidea: agiri guztietan, kanpainetan, idazkietan, dekretuetan, argitalpenetan, txostenetan, webgunean, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilpen ez-sexista egitea. Gogoan izan aipatzen eta erakusten ez dena, ez dela existitzen.
3. Datuak sistematikoki sexuaren arabera bereiztea. Jarraibide hori datu-bilketan, datuen azterketan, plangintzan, exekuzioan eta ebaluazioan txertatzea; baita azterlanak, diagnostikoak, sektoreko planak, memoriak, plan estrategikoak eta abar abian jartzen direnean ere.
4. Generoaren arloko trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea. Norberaren lan-eremuko proiektuetan parte hartzea eta ezagupenak zabaltzea.
5. Enplegu publikoko hautaketa-probetan generoaren arloko edukiak txertatzea. Generoaren alorreko oinarritzko ezagupenak edukitzeak ezinbesteko baldintza izan behar du Udaleko lanpostu-zerrendari atxikitzen zaizkion pertsonentzat.
6. Programen fase guztietan (plangintzan, segimenduan eta ebaluazioan) emakumeen eta gizonen beharrianak, udalerrian dituzten rol desberdinak, eta ondasun eta baliabideetarako irisgarritasuna eta kontrola jasotzea. Herritarrak sexurik gabeko izate neutroa balira bezala ez tratatzea. Jarduera bat pertsoneri zuzendurikoa bada, generoari dagokio.
7. Udaleko jarduera guztietan, emakumeen egoerari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bilakaerari buruzko alde aurreko ezagupen zehatza edukitzea, txostenetan, azterketetan, estatistiketan, eta abarretan oinarritutakoa.
8. Edozein motatako lantaldeak sortzean (Batzordeak, Epaimahaiak, Lan-taldeak, Kontratazio-mahaiak...) emakumeen eta gizonen presentzia parekidea bermatzea.
9. Jarduera zehatzak proposatzean, gogoan izan behar da gizonen eta emakumeen beste pertsona batzuk zaindu beharra izan ohi dutela; beraz, familia eta jarduera horiek

uztartzeko aukera eman behar diegu (ordutegiak egokitu, diru-laguntzak eman, zerbitzuak eskain...).

10. Aurrekontuak generoaren ikuspegia kontuan hartuta egitea, pertsona onuradunengan izango duen eragina ebaluatuta, eta gastu publikoak zein diru-sarrerek sexuen arabera izango duten eragina aztertuta. Berdintasun Planerako aurrekontu-partida bat gordetzea.
11. Proiektuen, diru-laguntzen, laguntzen eta kaptazioen berri ematean emakumeengana eta gizonengana berdin iristen garen aztertzea. Komunikazio-plana haien ohituren, ordutegien, eremuen, espazioen arabera egokitzea... eta genero-ikuspegia duen segimendu- eta ebaluazio-sistema bat edukitzea: helburu argiak, adierazleak, metodologia, etab.
12. Emakume atzerritarrek, helduek, elbarrituek, eta abarrek jasaten duten bazterkeria anitza gogoan izatea.
13. Norberaren lan-eremuan sortzen diren dekretuetan, diru-laguntzen pleguetan eta administrazio-araudietan berdintasun-irizpideak txertatzea. Azpikontratatzan diren enpresek eta pertsonak berdintasunarekin duten konpromisoa balioestea.
14. Emakumeen ahalduntze sozio-politikoaren sustatzea, herritarrek parte hartzeko sorturiko espazioetan aktiboki parte hartzera eta aitzindari izatera animatzea. Emakumeek hainbat arlotan (kulturan, politikan, ekonomian, kirolan, historian, eta abarren) egindako jarduerak ere ikusaraztea.
15. Genero-estereotipoak eta rol tradizionalak haustea, eta emakumeak eta gizonak, oro har, euren generoari esleitzen ez zaizkien bestelako egoera eta zereginetan erakusteko ahalegina egitea (esaterako, emakumeak kirola egiten, etxetik kanpo lan egiten, gizonak beste pertsona batzuk zaintzen eta etxeko lanak egiten).

Zer saihestu behar duzu genero-ikuspegia aplikatzeko?

- Emakumeentzat diskriminatzaileak izan daitezkeen hautaketa-irizpideak sartzeari, hala nola indar fisikoa. Komunikazio sexista: emakumeak eta gizonak generoari atxikiriko rol tradizionalak erakusten dituzten irudiak erabiltzea, gaztelaniaz maskulinoa termino generiko gisa erabiltzea, euskaraz substantibo gehienek ez daukate generorik (erizaina, garbitzailea, iturgina, suhiltzailea...) egokia izango litzateke generoa adieraztea, esaterako, gizon garbitzailea, emakume suhiltzailea...

- Genero-ikuspegia txertatzearen zeregina berdintasun-teknikariaren ardurapean uztea; izan ere, langile guztion ardura da udalerrri berdinkideagoa sustatzea.
- Sexuaren araberako desberdintasunen hautemate hutsa egitea, aurrerantzean jardun ahal izateko, arrazoiak eta ondorioak aztertu gabe.
- Berdintasuna emakumeei soilik dagokien gaia dela pentsatzea. Jarduerak emakumeekin egiteak ez du berdintasun-ikuspegia bermatzen.
- Berdintasuna sexuen arteko botere-borroka gisa ulertzea. Sexu batek bestearengan izan duen nagusitasunaren norabidea aldatzea; hots, gizonak, tradizionalki emakumeak mendean hartu eta haiengan nagusitasuna eragin izan dutenak, mendeko egoera batera igarotzea.